


BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz

306n. zenbakia

maiatza 2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

EGURATSA

Izarrak aztertzen asi-aurretik, urrago daukaguzan gauzak aztertu daiguzan: Argia, odeiak, aizeak.

Gure gainean dagon eguratsak mailla oneik daukaz: Troposfera 11 km.; estratosfera 11'tik 110 km'ra; ionosfera 110 km'tik 800 km'ra eta 800 km'tik gora eksosfera.

ARGIA: argiak zazpi arlotan banatzen diran abiada ezbardineko dizdizak daukaz eta zazpiak ikusiko doguz argia zazpi zati egiten ba'dogu, baiña zelan loru ori?

Artu daigun leiarrezko prisma edo zati lodi bat eta eguzkitan ipiñi, prisma orrek argia zatitu egingo dau, arriñen doan dizdizagaz asi, gorria, eta astiroen doanera, ubela. Zazpi margo oneik daukaz bere barruan zuri agertzen dan argiak: gorria, lanranja-margoa, beillegia, orlegia, urdiña, anail-margoa, ta ubela.

Prisma edo leiar-zati orrek gure eskuetan egin dauana bera, egiten dabe laiñoak ortzipean eta ortik sortzen da uztarkua edo iris arkuak, Erroma'ko Zubia be esaten dautsoena. Gauza ederra laiño-artean. Ez dau iñoz bildurrik sartzen jazokizun arrigarri orrek eta Biblia'n be bakearen ezaugarri lez agertzen da.

Goiz-erdian edo arratsalde-erdian ikusiko dozu, euri-egun eta laiñotsuetan, eguzkia ertzetik datorrelako.

ODEIAK troposferan dagoz eta ez dira ur lurrunduak baiño.

Itxasotik eta lurreko lurrunetatik sortzen dira eta artzen daben ur lurrundua gora jazoten dabe gero lurren gainera euri lez isuriteko. Orra or lurra ureztatzeko izadiak dauan bide arrigarria.

Gero lur-gaiñean ibaiak sortzen dira barriro geiegi dan ura barriro itxasoratzeko.

Gorengo odeiai laiñoa deritxe.

Lau odei-mota dagoz: 1) Zerrendak 1.000 m'ra; 2) lanpuak edo euri-odeiak, 1.200 m'ra; 3) legorak edo egualdi onekoak, oneik algodoi-antza eukiten dabe eta 500-800 m'ra dagoz eta 4) ipar-odeiak, urriñen dagozanak.

AIZEAK: eguratsa ez dago geldi, ibillian dabil. Aizeak ekuador edo lur-garrían sortzen dira, berotan, eta gora igoten dabe beko presiñoa, estutasuna, kenduta (alisioak dira) eta beko utsunera sartzen da aizea egoaldetik eta ipar-aldetik (alisio aurkalariak dira).

Indi-aizea erdikoa da eta sei illebete irauten dau, aize monzoiak dira eta ura be ekarten dabe.

Beste aize-mota bat, itxasoko aize fiña da (brisa) eta au ura lurra baiño beroago dagoalako goizean itxasotik lurrera etorten da, eta arratsaldean lurra ariñako otzitzen dala aize fin ori lurretik itxasora joaten da.

Gure artean erriko aizea ezagutzen dogu, lur-barrutik datorrena, ipar-aizea be bai, goi-aldetik etorri eta otza ekarten dauana. Ba-dagoz beste aize batzuk be curen izen eta guzti.

Baiña ezin itzi aitatu barik tifoï eta urakan bildurgarriak. Oneik tropiko-aldekoak dira eta bildurgarriak lurrean dana apurtzen dabelako eta itxasoan bildurgarriagoak itxasontziak urperatzen dabezelako, aundienak be bai.



Su -mendiak.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

BiZKAITARRAI-BiZKAIERAZ*



ALDI ZKARI ONEK
BI ZKAI 'KO FORU-ALDUNDI AREN
DI RU-LANGUNTZA JASO DAU

II JON PAUL ALTA SANTUA (EUSKERAZ LOIOLA'N)

(G.B.)

Atariko idaz-lantxu au idazten nagoan aldia, garrantzi aundikoa da gure Eleizearentzat: Urriñeko Polonia'tik etorri eta 26 urtean Arduradun Nagusi izan dogun aitasantua Erroma'ko Kepa Deunaren eleizan dago zerraldo eta kardinalak (117) Erroma'n alkartuta dagoz Aita Santuaren illetea egin eta laster "giltzape"ra sartu eta aitasantu Barria aukeratzeko.

Gauza asko esan bearke geunkez 2005-04-02 egunean (21'37n minutuan) il jakun aitasantu oneri buruz, baiña ori ez da une onetarako zeregin egokia. Nik bakar-bakarrik gogoratu nai dodaz aitasantu onek Loiola'n eta Xabier'en izan zan egun areitan, Loiola'n bertan esan ebazan berba laburrak:

**"Euskal Erriko kristau maiteok:
Bakea zuoi eta zorionak"
"Guztioi nere agurrik beroena"**

Berba euskeraz egitean ikusi bear dogu aitasantuak izan eban, gugana, errira sartzeko gogo bizia, eta berak gure erriarentzat daukan biotzik onena.

Egia da gure lurralde onetara eldu zanean ez eutsola mun egin gure lurrari, beste errietan egiten dauan lez, baiña orreik politikearen arazoak dira, zori txarrez, ori erri lez artzen ez gaituelako da, baiña aitasantuaren arazoa baiño geiago España'rena dala argi dago.

Betiko zoriona izan dagiala ogeitasei urtetan zaindu gaituan artzaiñak eta unengo izango dana be artzain egokia izan daitela.

OLAZAR'tar Martin'ek



EUZKADI'TIK MUNDURA BEGIRA

EUROPA (2005)

Ari zaigu Europa berri bat sortzen. Ari zaizkio Europa gazte oni Laterri berriak txertatzen (Poloni, Lituani, eta-bar). Beste Laterri batzuek, naiz — Turki'k adibidez— Europa'rekin zer ikusirik izan ez, txertaketa ori eskaturik daukate yadanik.

Baiñan Europa'ko Erririk zaarrena, EUSKALERRIA, Europa berri ontan aipurik ere gabe geleditu zaigu.

Ez da arritzeko gauza. Europa berri au ez bait da Europa'ko erriek egiña izan, Europa'ko laterriek baizik. Europa'ko Kostituzio berri ori ere Laterriek egiña izan da. Erriak ez du bertan zer egiñik izan. Ez da jardunkera berria. "Todo por el Pueblo pero sin el Pueblo" ("oro Erriarentzat baiña Erririk gabe") esan oi zan XVII mendean "Ilustrazio" edo "Argikuntzakoan".

Alare, naiz neri atsegiña izan ez, Europa oni BAIEZKO autarkia eman diot nik bere Kostituzioari-buruz gertatu-berri diran auteskudeetan, ziur bait dakit euskaldunok Europa'rik txarrena ohea dugula España'rik onena baiño.

Gaiñera, ¿nork jakin dezake zenbat iraun dezaketen Europa'ren kostituzio orrek, Europa'ko Laterriek... eta EUROPA berberak?

Gaurko EUROPA ez da gure gurasoen garaieko EUROPA.

Badu ortan gure mende onek Erromateko III mendean antza. Mende artako Erroma ez bait zan I mendekoaren itxurakoa. III'ean Erroma'ri bere Inperioaren ertza guztietatik atzeritarrak, ots, "barbaroak", sartu-ta-sartu ari izan zitzaizkion ba, etenik gabe, sarrera paketsuan, biziera ego-kiago baten billa. Poliki-poliki aldatu zuten Erroma'ren itxura, ta azkenean, atzerrian gelditu ziran "barbaroen" tribu edo leñuek, —V mendeaz gero—, guda egiñez Erroma'ren gaiñerajausi ziran, eta Inperio osoaren jabe biurtu.

Gertatuko ote zaio noizbait gure Europa oni orrelako zerbait? Baleike. Baiña gertatzekotan, Erroma'ri baiño azkarrago.

Ona zergaitik:

—Oraingo inmigraketa III mendeko ura baiño askoz mardulagoa dalako, eta oraingo inmigraketan datortkigun jenderik geien-geiena musulmana dalako. Musulmanentzat politika, soziologia, moralitate oro, eta baita beren biziaren arrazoi bakarra ere, erlijioa dalako.

—Eta, ondorioz, beren eginkizun nagusia, ludi osoa ALA Jangoikoaren Erreiñu biurtzea dutelako, ortarako, berarrezkoa ba'dute, GUDA SANTURA joz!

—Gaur, Europa'tik at, munduko arrolorik geienaren jabe, musulmanak direlako, Europa'n etorri diranei beren anai aberatzengandiko diru-laguntzarik faltako ez zaielako.

—Gauza jakiña da, Eliza izan zala, barbaro aiek kristautuz, Europa'n gure zibilizazioa salbatu zuana. Gaur ordea

kristautasuna beerunz doa, eta bailekike lau edo bost belaunaldiz gero Europa-ko erlijiorik aundiena musulmantasuna izatea, (munduaren azkenera arte Elizak iraungo zuala esan zuan Kristo-k ez bait zuan iraunpen ori Eliza'k Europan izango zuanik esan).

—Europa'k berriz, inmigratio ori bear-bearrezkoa du, bere ekonomiaren oparotasun aberatsa ez ba'du galdu nai, jaiotzen zaizkion umeak, gero ta geiago, inmigratzaille musulman oien semeak bait ditu.

—Euskalerrian ere gure emakumeek bai, atsegin dute "maitasungintza" edo "hacer el amor" esan oi dioten larrujotzen ibiltzeari, baiñan erditzeari-buruz ez dute ezer entzun ere nai.

Baleike beraz, laister, Euzkadi'ko biztanlerik ugarienak musulmanak izatea; eta gure eliz ederrak, mezkitak. Baleike baita gure Lendakaria ta gure agintaririk geinek musulmanak izatea. Demokraziak bide erreza bait damaie kargu garai oietara iristeko.

Latiegui-tar Bixente
BITORI

JARAKORTEXARENA'TAR TXOMIN APAIZA'RI

Berastegi-ko seme kutunena gaztetan zan kirol-zale nabari, auta pelotari, berdin dantzari, eta baita ere kristau ben-bena.

Ortaz, bere goi-asmorik onena jauresteko bizitzan Jainkoari eta otseintzeko Euskal-Erriari, izan zitzaion elburu maitena.

Naparrate-ko abade izan zan edatzen trebeki ango izkuntza; eta, anai arteko gudan, "ARABA" gualosteko apaiza.

Egun gorriak ikusi zituan antolatu arte bere bizitza.

Misiolari lez ori lortu zuan, "LA PAMPA" izaten bere egoitza...

Gora zu, argi ekinzale APAIZA Pampa-ko "Martin Fierro" MISIOLARI, Monen-Kazon-go ERLE aberatza, Jainko ta euskeraren kirmen GUDARI!!

JOSU ETXEA

EDUARDO URZELAI ASTEGIA

ERRI-GIZONA



Oraintsu il jaku Berriz'en Eduardo Urzelai, euskaldun eta erri-zale zintzoa (G.B.) Berriz'en omendua izan zan (2001). Argazkien bidez azalduko dogu urte larri eta estu aretan berak egin eban lana (Berak emonak dina argazkiak).



Eduardo sendi alai eta zintzo baten bizi izan zan.



Eri-kirolak eratzan trebea zan, batez be idi-demak.



Durango-aldeko atzeratuon alkartea sortu eta aurrera atera eban.



Aldi aretan diru-laguntzak bilatu bear ziran. Ez zan gauza erreza. Ezagun dogun "ATUTXA" izan eban laguntzaille bat BBK'tik.

EUSKALDUNAK



1953n. urtean agertzen da or, sariak banatzen baiña urtero eratzen ebazan sarketak.



Berriz'ko udaletxeagaz batera gurasoen taldea sortu eban errian.



Leareta-Markina ikastetxea sortu eban erriaren laguntzaz. Aldundiak milioi bat.



Umore oneko gizona zan. orregaitik postuteren eban erria jailetan: arrijasotzaileak.



Urtain ikubikari ospetsua be ekarri eban.



Pelotariak ez ziran inoz peitzen.



Berrizko futbolaren taldean lenengo lendakaria izan zan.



Ardantz Lendakaria'ri esker onez domiña bat eman eutson.



Bizka'ko Batzar Nagusietan (1983-1987)



Albiste guztiak zabaitzeko "Munibar" eban lagur

BAKIOKO MAPA TOPONIMIKOA ETA KALE IZENDEGIA

1aSARRERA

Urrengoan irakurriko dozuna, ZER aldizkariko irakurle orrek, Bakioko Udalak laster argitaratuko dituan erriko mapea eta kaletegia egiteko guk geuk egileok erabili doguzan erispideak Erriari azalduko idatzita (Iago. Izan bedi zuretzako be areen barri iturri).

BERBAURREA

Urteak etorri eta urteak joan, aspaldion gure erria itzel aldatuz, andituz doa. Gaurko kontua izan ez arren, gure errira datozen lagun askori au edo beste bizileku a topetea gax be gax egiten jake. Premina andi ori ikusita eta urigintzearen aldetik erria obeto atondu gurean, erriko kale guztiai, dagozan eta egingo diranai, izen bana imintea erabagi eban Udalak. Au onartuta, aldakuntza andiko sasoiotan erriko berezko eskal nortasunari. gomutapen istoriko-kulturalari sendoro eusteko aaleginari bidezko ezeze. beturezko be baderitxogu.

Alan bada, etorkizunerako egiten gabilzan erri au egituratu egin bear badogu, gure aurrekoak itzitako ondarean oinarrituta egituratu daigun. Ondare orretako zati bat. eta ez leba txikerrekoa. erriko berbetea da. Gaur eguneko Bakiok eskaintza turistiko-kultural zabala dauka errira parajetuko dan erbestekoari edo atzerritarrari egiteko, areatzea dala, mendia dala, Isakolina dala, Musika Astea dala..., baina, baita erriko berbetea, erriko euskerea be. Oraindikoa iTen bizi-bizirik dirau beronek. Eta bear au Bakiok kanpotik datorren:u-i eskaini gura deutson alderdi orretan aurrerako oinkadatzua baino ez da. Ori ezeze, erriko euskeraren normalkuntza bidean aurrerantza egingo dan oinkada sendoa be izango da.

Bear au ordu askotako aaleginaren emoia izan da, beti aurrean euki dogula. egindako bearrak kalidadezko produktua ekarri bear dauala. Bost urteko ikerketa toponimikoan oinarrituta dago, ikerketa ori oraindikarren amaituta egon ez arren. Mapeak alderdi bi daukaz. Alderdi baten, bertan agertuko dira kale izendegia, berari jagokon kaleetako planoagaz, eta mapa toponimikoa toponimioen zerrendeagaz. Beste alderdian, Bakioko ortoargazkia (zerutik egindakoa) eta erriko lekuetako argazkiren bat edo batzuk agertuko dira.

KALE IZENDEGIA: AZALPEN -ERISPIDEAK

Erriko kaletegia edo kale izendegia egiterakoan, ori berori egiteko dagozan aukeretatik bat artu genduan eta beste aukera guztiak baztertu. Gura asmoa izan da, kaletegi ori denporan neutroa eta iraunkorra izatea, au da, bein betikoa, aldatuteko gax egingo dana. Ori lortuteko erdibidea aukeratutea ebatzi genduan: erriko toponimia eta euskal kaletegi istorikoa erabiltea. Beste aukera guztiak, esaterako, pertsonen izenak edota pertsonak egindako ekintzen izenak erabiltea guztiz baztertu genduan, denporagafTenean, makina bat lekutan ikusi dan lez, errezege kenduimini egiten diralako. Azken baten, jokabide alderdikioiak eta alderdikeriak ez onartutea, enia<-en mesederako. Gure jokabide au zabal-zabala eta emonkorra da eta, zalantza barik, ereduzkoa izango da Euskalerrri osoan. Kontuan artuko aal dabe etorkizuneko udalak be oraingoan argi eta garbi aukeratu eta edegitako bideal

Euskal kaletegi istorikoa dinogunean, Bizkaiko utietan (Bilbo, Durango, Gernika, ...) sarritan erabilten izan diran kale izenak, deskriptiboak, eragindakoa dala asan gura dogu. esate baterako: Albokale, Artekale, Barrenkale. Barrenkalebarrena, Goikokale, ... Euskal kale izendegi istoriko dalakoaren izenak gure erriko zanik (kalerik/biderik) nagusietan erabili doguz: **Albobide, Barrenkale, Basigoko bide nagusia,**

Goienkale, San Pelaioko bide nagusia.

Bakioko toponimia edo leku-izenak izan dira, baina, berton aurkeztuko dogun kale izendegiaren oinarri-oinarria, izen gitxi batzuetan izan ezik. Toponimiak lekuan lekuko berbetegaz zerikusi andia dauka, eundaka urteetan agoz sortu eta erabilitako izenak izan diralako eta badiralako, geroago baten paperetan idatzita lotu arfen. Alan bada. galduta edota itxuragetuta egon diran izenak atzera eskuratu doguz, aurrerantzean be banian ezagunak eta erabiliak izan daitezcan, berbarako: **Areza-bal, Bidegoitia, Elexalde, Errementeria, Ibarratorre, Kontxaondo, Mieta, Urzabal, Zarrakoa, ...** Sarritan, leku-izenok paper zaarretan bestetara agertu arren, kale izendegikoak euskeraz idatzita egongo dira, izenak eurauskaldunak diralako, jakina. Aalegindu gura be, bada, bide, kale, plaza edota zubi danari lekuan lekuko toponimoa iminten. Au ezina izan hada, andik paraje-paraje dagozan leku-izenetariko bat aukeratu dogu edota, ain paraje egon ez arren, asago ez dagoan beste lekuren batekoa.

Alanda ze, toponimian oinarritutako kale izenak zati bi eukiko dabez: izen espezfikoa (toponimikoa, geien baten) eta izen generikoa. Izen toponimikoa toponimiatik artez artutako leku-izena da. eta. ostera, izen generikoak kale izen ori zer dan (bide, kale, plaza, zubi...) adierazoko deusku. Berbarako: **Ibarratorre kalea, Ibarratorre** izen toponimikoa da eta kalea izen generikoa. Gitxi batzuetan, leku-izena erabili bearrean, izen espezitikoa erabili dogu aren orde eta orren ondoan izen generikoa, au da: **Areatzako etorbidea, Areatza** gci -ko atzizkia izen espezfikoa dala. Inoz be izen generiko barik izen espezfikoa uts-utsean erabili dogu: **Albobide, Barrenkale, Goienkale.**

Kale izendegian erriko erabilkerea bera izan dogu guk be ardatz. Au da, sarritan -ko atzizkia NON zein NORA bitzuak adierazoteko erabilten izan dau erriak, alantxe be erabili dogu guk aukera ori bear onetan kale batzuei izena iminteko, esaterako: NON: **Anbietako goienkale, Bentako plazea, ...** eta NORA: **Birjilandako bidea, Uribarriko bidea,**

Izen generikoen idazkeran erabili dogun beste berezitasun bat. izenak berez -a amaikerea dauala eta -a artikulua batukeran sortuten dana (-ea) izan da: **plazca (plaza+a), -ea** ori Bakion (-ie) esaten da agoz (plasié), baina idazkeran bizkaiera idatzi arautuaren bidea aukeratu dogu.

Idazkerearen aldetik esan bear da, izen toponimikoetan **ñ, ll, tx** izkiak erabiltea eta **h** izkia ez erabiltea aukeratu dogula, Egoaldeko toponimian oiko eta onartua dan ezkerroan: **Arezabaleko zubia, Itxastxoriatxe, Kurtzeperioko mallak.**

Izen generikoetan, ostera, areen orde **in, il, ts** izkiak erabiltea ebatzi dogu: **Areagako itsas ibiltokia.** Au kontuan obeto ulertuko da leku-izenen zerrendeari begiratu ezkerroan.

Geure bear au egiteko. bada, oso kontuan artu dogu erriko berbetea, Bakioko bizkaiera. Baina egindako aalegina etorkizunerajaurtigi gura izan dogu. Au da, Bakioko bizkaiera orreri bizkaiera arautuaren bidean ibili eragin gura izen deusgo. Jagon doguz on*etarako gaur eguneko idazteko arauak eta legeak, geureari nortasuna galdtu eragin barik. Zeozelan, gaurko ikuspegitik eundaka urteetako continuum linguistikoko orre-gaz bat egiteko. erriko gomutapen linguistikoari eusteko asmoagaz, atan be. Azken baten, guk geuretzako egindako bearra da, baina baita kanpo-kari geurerik onena eskaintzeko be ginda. Orregaitik, kaleetako izen guztiak euskeraz baino ez dira idatziko, ikuspegi euskaldun-euskaldunetik ara aukeratuak izan diralako.

(JARRAITZEKO)

INIAKI MARTIARTU

ITXASOA TA LEORRA. ASIA

Iretargira igon ziranen artean, olako alkar-izketa bat izan zeitekean:

—I, urrin gaiagozak gure lurretik! Zugatzak, ibaiak, bideak... ez dozak bereizten!

—Egia dok! Eta erriak be ez dozak agiri lengo lekue-tan.

Eta gorago igon ziranean:

- Gure luna biribil eta eder, urdin-urdin agiri dok.

—Bai, baiña zer dozak biribil aundi ta eder onen barruan agiri dozaken illun-une oneik?

—Benetan illun-une aundiak dozak, batzuk illunagoak, beste batzuk ez ainbeste.

- Ba, illun-uneak luna legor dagoan lekuak izango dozak, lur-banu zabalak: Euroasia, Afrika, Amerika biak Ozeania eta ardatz buru bietako lunaldeak.

—Orduan, mota argiakoak itxasoak izan bear, Atlantikoa. Barea eta indikoa.



Itxasoen sailleak lautatik iru dira lur-azal osoan eta legor-une guztiak batu ezker, ez litzakez izango itxaso Barea'ren besteko arloa.



Lur-azalaren alde bat: itxasoak zabalagoak dira. (Eurasia-Afrika)

Afrika'k iru-zoko baten antza dauko.

Eurasia'k erdian Ural-mendiak dirala, Europa ta Asia ditu eta leorraren geiena dira.

ASIA

Legorraren zatirik aundiena ta jentetsuena da Asia,. Lur-azal osoaren iparraldean dago, goi-aldetik iparraldeko izotzak eta be-aldean lur-garriko beroak dituala.

Asia'n zabalune izugarriak dagoz, esaterako Siberia, Txina ta India eta bitartean basamortu aundiak: Tibet, Mongolia, Iran, Arabia.

Tarteka mendi-tantai aundiak, Himalaia munduko aundi^gna dala. Emen Everest 8000 m.'koa.1953n. urtean eldu zan gainera lenengoz anglandar bat Tibet'eko morroia lagun ebala.

Asia'k bakarrik munduko gizaki guztien erdia dauko, leiñu eta enda guztietakoak.

Baiña ba-daukoz iñor bizi ez dan lurralde zabalak be, esaterako Siberia'ko lur izoztuak, India menditsua, Malaysia'ko baso baltzak.

Biztanlerik geienak arroza jaten dabe. Anozta zingira-lurretan artzen da eta ugaria da, urteko uzta bi be amoten dauz lunak, baiña asko izan arren ez da naikoa janari jentetza osoarentzat. Eta egin bear jakon lana neketsua da, nekazariak txiroak izaten dira.

Asia'n bizi dira munduko errialderik zarrenak, Txina'tarrak, Japon'darrak eta askotariko leiñuak, Tibet'en goi-aldeetan batzuk.

1939-1945'ko guda-aldian asko jazan bear izan eben Asia'tanak, batez be Japon'en kizi-indarrezko lerkaiak lertu ziranean.

Toki batzutan arrorria dabe irabazbide ona, batez be Irak, Iran, Kaukaso eta Arabia'ko lunaldeetan

Mundu guztia dauka ikaraz Irak'ek iñoz amaitzen ez dan guda-antzekoak, eta Bin Laden buru dala, Islan'danak asi daben kristiñauen aurkako izukeriak zer-pentsau emoten dau. Gogoratu Ipar-Amerika'ko liraillaren 13n. eguna (2001)eta Madrid'eko martiaren 13n.'ekoa (2004).

Munduarentzat ezaugani diran unen artean gogoratu dauiguzan Asia'n Jerusalem, un ospetsua judatarren, islandarren eta kristiñauen un santua, Mesopotamia'koa izan zan Bailonia k.a.'ko 2000n. urtean, Nepal'eko inditanen lekaide-etxeak, Txina'k aurrean darabiltzan lamak buru dirala, pagoda aniganiak, Txina'ko anesia orain bi milla urte egiña eta eundak km.'ak luze dauzana.

Jakintsu aundiak eta ospetsuak be izan dira Asia'n: Buda, Konfuzio, Lao'Tse, Zaratustra... Guztien artean Asia lurralde oso erlejiño-zale biurtu dabe.

OLAZAR'tar Martin 'ek

EUROPA'REN ERKIDETASUNA (I)

SARRERA:

Europa, erri-gizarte arduradun lez bideratzeko, 2.005'an Otsaila'ren 20'an aukera barri bat euki dogu, gure bozka edo autarkien aburumenagaz (opini6n), baietza edo ezetza emoteko.

Eta baietz edo ezetz ori ondo ulertuta emon ba-dogu jakiteko, jakin bear doguna, zelako aukeran emon bear izan dogun gure autarki da.

Euskaldunak orretarako egin bear doguna, bananduta eta mai-gaiñean zabalik, aurkeztu gure eskubi-dearen tresneriak zeintzuk diran, eta zelako tresneri artean beartzen gaituen autarki ori emoteko.

Eta emen garrantziko gauza aundi bat esan dot: "BEARTUTA".

BEARTUTA esaten dot, daukaguzan laterrien erabagia, erritarren borondateagaz edo borondaterik-gabe aurrera eroango dabelako. Erromatarrengandik oraiñ arte egin daben antzera.

Baiña gauza orreik gaurko denboratan ezin dira egin ainbesteko lotsagabekeria, guzurra ta marrukeri aundiak argi argi ikusbegian geratzen diralako.

Orregaitik, gaur berezko erritarren gaiñetik egiten doiazan alkartasunezko erabagi orreik, Mundu onetan dagozan aldaketak, Europa'ren egoera beartu egiten dabelako oinkada orreik emoten dira, eta laterrien agintariak era-bat beartuta dagoz itxura on-antzeko bat emoten, oraindiño erri-gizartearen demokrazizko arrazoiaren eskubidetik, aiñ urrun dagozan erabagi orreri.

A-ta guzti, ni uste onekoa naz gero esango dotenagaitik. Eta nai-ta gaur arte esan ba-dogu: "Txarto gogoratu zaitez eta igarriko dozu"; Eta orain esaten ba-dogu: "Txarto gogoratu zaitez eta labur geratzen

zara"! Ni itxaropentsu agertzen naiz, gizartearen demokrazizko egarrian sinisten dotelako.

Dana dala, baiezko edo ezezko autarkia emon arren, beartuta egon gara ipini-dauzkuen autamen ori beteten, gure arazoaren tirakizunak batera joan daitezcan. Utsunean itzi ezkeru, batzuen arrazoigabekeria urriñago joango ziralako, gure arzoak aundiagotuz.

EUSKALERRIA:

Euskalerraren tresnak: Berezkotasunean egindakoak dira, NORTASUNAREN ASKATASUNEZKO ARDURAK zeaztasunezko neurri aundiz elburu dirala, JAINKOA'ri begira.

Euskaldunak Batzangotasunari, sekula uko ez dautso egin, Nortasun bakoitzaren ardurak on-artu eta zaintzen diranean. Bestela gogora ekarri daigun zer esan gura dogun Iparagi-re'ren "GERNIKA'ko ARBOLA" abestuten dogunean.

Euskaldunak, guztien askatasuna on-artzen dau, ori dalako bere Endaren izatasunezko sinismena, danontzat bardiña izan dadin.

Eta eginkizun ori dalako gure dauana Mundu ta Europa osoaren-tzat.

EUROPA:

Europa, Demokraziaren egarrian agertzen jaku gaur. Eta konturatuten da, XIX'n gizaldetik erritarren buru-gaiñetan daukaguzan Laterri oneik espataren indar eta guda keiñuakaz ipinita, ez dirala egokienak pozoituten gabizen luna, aizea ta urak garbitasunean egokitzeko, eta batez be Europa'ko erritarrak bakez batzangotu daitezcan.

Eta nai-ta erdira-zale Laterri-menperatzaille onen bidetik bea-

rezkoa dalako, gaur eguneko batzangotasun au egin, legeak euren alde egokitu gura dabezelako, guretzat ez da ametskeri uts-bat guzti au, Europa'n oinkada orregaz arrazoiaren ulermenerako, beste goi-mallako antzoki zabal baten kokatzen gaitulako, eta mugi-gabeko lekutik urten ezkeru, aukera aundi ta barriak agertzen dira, ate asko zabaldu leikezanak, danon arduran Europa'ko erritarren bizitza egokitzeko.

Konturatu bear gara, guda-barik egin gurean dagozela batzangotasun au, gudaren bidetik egin ezkeru, Europa zoritzarreko amiltegian sartuz gain, gaur gagozan xautzailletasunaren-ardurabako menperatzailletasunean ostera be geratzen garalako. Eta oinkada-ori, oinkada luzea da demokraziaruntz.

Aldebatetik, edesti guztian txarto eraikita dagoena aldatzen joan bear dalako, eta Laterrien jabetasunetik asten dira, Europa'k, jabetasunaren indarra euki dagian.

Bestetik, lurralde bakoitzeko egipidearen eskabideak, zuzentasunezko bideak eskatuko dabezalako. Ekintza orreik bakarrik, berez, utsean izten dabez gaurko Laterrien zeregiñak.

Eta Europa arrazoi-bidean doala konturatzeko, ez da besterik kontuan artu bear, PP'koak nai baietza emonda-be Europa'ko iraspenari, eurak Amerikarren menperatzaille batzangotasunaren atzetik dabizela baiño. Eta nai-ta buru belarri eritzi orrein atzean ibili, ezin dautsoe Europa'ri ezezko autarkirik emon, euren asmakizun erdira-zaleak agiri-agirian geratzen diralako.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZA'n

2.005'an ZEZEILLA'en 16'an

LURRALDE BEROETAN

Ego-Ameriketako baso aundietan aurkitzen gara gaur. Ez dago leoirik, ez katamotzik, baiña bai beste ugatz edo erapedun batzuk.

Guztien artean aundiena tapir da, indi-urdea, txikia izan arren ez da oitura onetakoa, oldarra da eta errez biur-tzen da abere guztien etsai.

Puma anka txikiak dauzan leoi baten antzekoa da eta eiztari bizi-bizia, indar aundikoa eta biotzez ankerra. Dana dala gitxitan erasoten dautso gizakiari. Iparraldeko basoetan ilten dauz oreñiak eta Arjentina'ko panpan beste abere batzuk, Barsil'en ban7z tximiñoiak dauz janari.



Olanetako erregaa.

Jaguaraundi neurritz luzca da baiña anak dauz txikiak eta gabaz ibiltzen da eiztari.

Guztien nagusi Jaguar dogu, gizonak eta bareak irun-tziten zalea. Orregaitik ditu etsai inditarrak eta eraso egi-ten dautsoe zaldiz naiz sare. Eta igeska zugaitzera igoten ba'dau, tiroka edo gezi pozoidunak jaurtiz ilten dabe.

Gau beroetan erregiña lez agertzen dan iretargia gobel dago, batzutan ezkutatu be egiten da eta urrengoan zida-rezko odeien artetik urtetzen da. Iretargi-izpiak ez dira sasipera sartzen baiña ibaietako ur-gaiñean diz-diz egiten dabe. Zingiraren ingueruetan eiztari dabil jaguar'a.

Txoriak euren abietan arrapatuko ete ditu? Ala txan-gurruari botako ete dautso atzamarra? Ala buztana goian dauala dabillen koati arrapauko ete dau? Arrain edo dor-tokaren bat iruntzikko ete dau? Ala erdi lotan dagoan muzkerra? Zeozer arrapatzeko errezagoa danaren billa ete dabil?

Jaguar pizti nabarra baso guztiko errege izugarria da

Baila goazen euri-zaparradadak izaten diran lekueta-ra.. Udabarriak loraz beteten dau ingurua. Abere txikiak ezkutuan bizi dira, baiña aundiak aundi agertzen dirala.

Abere guztien artean gorenana dan (5'50 m.) jirafea agiri da: Ba-daki bere umetxuagana makurtzen, bailía goian diran abarren janariak billatzen joako eguna. Ez dau egi-ten ezelako orroa edo zaratarik, mutua da.

Jirafa txikiaren aragia oso gozua izaten da beste piz-tientzat, orregaitik amak zur egon bear izaten dau.

Ondoan dabil "rinozeronte" edo mutur-adarra: 1 '70' ko goierea, 4m. luzeera eta 2000 k. pixua. Narrua lodia eta ona.

Okerragoa da Afrika'ko mutur-adarra Asia'ko ori baiño Onen bizkar-gaiñeak txoriak ibiltzen dira eta lagun-tzat artzen dauz, gorputzeko zorriak kentzen dautsoezala-ko.

Baiña ona emen benetako erregea basa-piztien artean: Leoia! Urdaila utsik daukanean baiño ez dau orroa egi-ten.

Bakarka naiz taldeka ibiltzen da eizan eta jirafa, orein eta auntzak ez dautsoe bildur aundirik leoiari

lenak be okerrak dira eta lo dagozen gizakiai nai arte-giai erasoten dautse. Pizti benetan iguingarria jaku! Txa-kalak izaten dauz lagun.

Zabal aztertu barik izten doguz basa-idea, astonaba-rra, orein-auntzak, agali-katua, fenek azeria...

OLAZAR' tar Martin'ek eratu

MIRENTXUREN AMETSA

(3N. SARIA)

Adimenera eldu zanean erabaki eban, zalantza barik; mixiolari izango zan. Orretarako ikasketa bereziak bear zirala Mirentxuk baekian, bere erri txikitxo-ko ikastolan ikasitakoa, oinarritzakoa baino ez zala eta.

Urte aretan artu eban bere lenengo Jaunartzea eta egun ain garrantzitsuan, biotz-beroaz, mixiolari izateko aleginak egingo ebazala itz emon eutson Jesusi.

Urte berean ere garizumaroan, fedean sendotzeko, Afrikatik eldutako mixiolari bi etorri jakezan errira. Izlari bikainak ziran eta Mirentxuk ago zabalik entzuten eban. Pelikula batzuk bere ekarri ebezan, oso apalak baina unkgarriak ziran. Ikusteak Mirentxuri biotzean zirrara emon eutson.

Garizuma ostean Mirentxuk aitari: — Aita, badakit baserriko bearra ugari dala eta danon laguntza bear dozula baina bost urte barru, nere arrebatxoak andiagotuko dira eta orduantxe nik, mixiolari izateko ikasketak egin gurako neukez—.

Poztasunaz artu eban aita Mirentxuk esanekoa, Jaungoikoari biotz-beroaz sinisten eutson esta.

Andik aurrera neskearen ametsak ugari izaten ziran. Bere zuriz jantzita, —pelikuletan ikusitako moduan— Afrikako basotarren artean, umeak zaintzen barazkiak zelan landu irakasten, euren bizimodua ikasten eta batez be, Jesusen bizitza azaltzen.

Egunak joan eta egunak etorri, Mirentxuren guriak gero ta sakonagoak ziran. Laster, ikastegira joango litzake, au poza! Erriko abadeari ezkerak, ikasketarako diru-laguntza lortu eban aitari ez leporatzeko.

Dana joateko prest egoanean Mirentxu amaren arpegi larriaz oartu zan. — Ez estutu ama— esan eutson gozaro — Ni poz-pozik nago, nire ordez Amaiaren laguntza daukazu, ondo esanekoa da eta amaika urte betetzekotan bait dago—.

Lasaitu zaitez laztana—, esan eutson amak, etxeko lanetan jardun bitartean— zu urrun izatearen iluntasuna baino ez da—. Begietan oster a negargurea eutsi eban.

Bere alabarik nagusia! Beti ain ona, alai eta gozoa... Orregaitik bearbada gazterik ikutu eban Jaungoikoak. Zelan ezeztu? Eurak alaba geiago ebezan; Amaia, amar urtekoa, bost urtetako Uxua eta... oraingoa?

Ama, aurdun-aldia dalakoan-eztalakoan ixilik egoan, inori esan barik baina goizeetako larritasun ori... naiko adierazgarria zan. Olako barriak pozgarriak izaten dira beti baina orain, Mirentxu, bere ametsa lortzeko albidean egoanean ain zuzen be...

Arin joan zan udea, ikastegira joateko eguna eldu

zanean danok urduri ebiltzan, ortik ara, andik ona, geldi ezinik.

— Mirentxu, badarozu jantzi naikorik? Zorroan sartu dozu nik egindako jertze lodia? Ondo berokitu laztana, Naparra-aldeko neguak oso gogorrak dira eta!

Bai ama, bai aita, lasaitu zaitez mesedez! Ondino ez noa ez Siberiara ez Afrikara, or ondora baino, laster, oporraldiak etorriko dira eta berriro emen izango nozue, ez kezkatu ama!

Beste motatako kezka zan amarena. Aurdun-aldia egiztatzeko azterketak amantalaren sakelan gordeta eukazan eta bai, baiezkoak ziran, baina ez ori bakarrik, biotzarako frogak egitea gomendatzen, eben zeozer adierazgarri ikusi ebelako.

Orregaitik bearbada, Mirentxuren autobusa urrundu orduko, senarraren besoetan oraturik negar-zotinka asi zan. Gizonak ezer ez ekian eta emazteak bere larritasunean dana azaldu eutsonean oso kezkatu egon arren, lasaitzen alegindu zan, etorteko egoana mutikoa izango zala esanez. Emazteak senarrari aopean gordetzeko eskatu eutson Miren alde-aurrez ez kezkarateko.

Froga guztiak amaitzean osagileak, gelditasun luzeak egin bearke ebazala esan eutson, baita ere, aurra izan ostean. Alan ta guztiz bere, amak, ixilpean gotezanean ekin eban, Amaia eta Uxua, aitaren laguntzaz etxeko bearretan arduratuko dirala esaten eta Jaungoikoari berea eskatzen. Beste aldetik Mirentxuren eskutitzak irakurtzean, poztasunaz eta indar berriaz betetzen zan. Egitasmo ugari eukan beste mugetara joango zalakoan.

Arin igaro ziran egunak eta gabonaldiko oporrak laster izango lirake. Aita eta ama arduratsu ebiltzan. alaba txikiak engainatzea erreza egiten jaken baina amazpi urte egiteko neskea, zelan engainatu? Ama oso sabeldun ez egon arren, ogean egoteagaitik potoloago egoan eta.

Etxeratzeko eguna eldu jakon ikasleari. Autobusean joiala biotzean taupada arrigarriak sentitu ebazan. — Etxera itzulerak unkitu nau— pentsatu eban Mirentxuk.

Baegoan ikusmenean erriko geltokia eta antxe egozan etxekoak zutik bere zain, areik bai besarkadak, mosuak eta negarrak! Etxetik kano iru ilebete izan bearrean, iru urte izan zirala irudian.

Etxerainoko bidean, ama, Mirentxuri josita joaian, Amaia eta Uxua eskutik lotuta bide osoan abesten eta aita itzik egin barik gurdia gidatzen joian.

Orrelan joiazala, Mirentxuri berriro biotza taupadaka asi jakon eta zeozer bitxirik susmoa, etxera eldu

IPUIN-SARIKETA

orduko danok jesartzeko eskatu eta galdetu eutsen: Zer jazo da emen ni joan naizenetik? Ama, gorputzez loditsuago baina arpegi onik ez dauka, aizatxoak arrigarritzko zentzudunak eta afta... ene aita maitea! Gaixorik zagoz bearbada? Ilun, argal eta kolorga ikusten zaitut, ezaidazue mesedez gertatu dan guztia.

Alaba txikiei kalera joateko eskatuzgero, gurasoak, alkar-begiratu eta irurok jesarrita, onela adierazi eutsoen: – Ez genduan zure ametsa suntsitu gura– Esan eban aitak. Eta zeatz-meatz amarf jazotakoa azaldu eutson.

– Orixe izan da nire biotzak bidetik esan gura izan deustana! –esan eban Mirentxuk begiak malkotan – Orain ulertzen dot dana. Benetan pentsatu dozue afn berekoia nazanik! Umetan Jaungoikoari, lagun-urkoaren aldeko lanerako biziko nintzakela itz-emon neutson baina orain zeuek zarfe geien bear nozuenak, emen naukazue gogo bizirik danaz arduratzeko eta Jaungoikoak gura dauana izan daitela.

– Baina ikastegian ikasitakoa? – itandu eban amak samurki.

Ikastegian bere –erantzun eban Mirentxuk ausarti-irugarren munduaren aldeko lana, edozein tokitatik egin daitekela ikasi dogu eta aurrerantzean, lan orretan etxeko guztiok parte artu daikegu.

Baietz esaten, danok barren-algaran asi ziran. Aitari zeruko ateak zabaldu jakozan, orain, Mirentxuren ardurapean, ama, erditze egunera egoerarik onenean elduko litzake eta goiko aitak gura izango baleu, luzaro alkarturik biziko lirake.

Ogeitabost urte geroago, Mirentxuk baserriko atetik oiuka. – Etorri ona seme-alabatxoak! Jon, osaba mixiolariaren barriak eldu jakuz, jesarri zaiteze sutondoan amama eta aiteitaren alboan nik irakurri daizuedazan.

Irakurri baino len, Jaungoikoari ezkerrek emon eutsozan bere ametsa, Jonek, berak zaindutako neba maiteak oparitu eustolako.

PALMI MERINO PORTELA

ZORIONAK IKER

Nire ametsa osotzen joiek
mutillaren gogoagaz,
Euskalerriko erri ederrak
poztu nai jua iregaz,
Mungiko maite kutuna
deika egoan itzagaz,
izkuntza bikain zoragarria
nork goratu idatziaz.

Mendi ta zelai eta arizti
adi daukezak poz pozik,
curen ederra, beti, opaka
ire itza poztu nairik,
aurrerantzian euskaldun lurra
ire laguna izanik,
gogo onenaz argituko au
ederragaz indarturik.

Alde batetik eta bestetik
euskaldun tokietatik,
euzkotar seme goragarriak
adf daukezak gogotik,
lan-toki nausi bardingabeak
euskal itza entzun nairik,
au dok egia asmetan dana
bazterrik bazter danetik.

Gangoiti Felix, emen, ba-legok
illobiaren aurrean,
egi eder bat esango leuskik
erriaren izcnean,
lora eder bat ederrik ba da
munduaren egalean,
loretan lore euskal izkuntza
illezkorra dok lurrean.

PAULIN

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbb'ra eta ordaindu 20 C. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

URETAKOAK ETA BASAMORTUAK

Uretako bedarrak beti ibiltzen dira uraren gainean. Eta landarrak eta lora- autsak bildur aundia izaten dautsoe urari. Orregaitik, loreak uraren gainera urten bear dau beti, orretarako bere laztoa luzatuta.

Ur-landarak aizez beterik dagozan uger-gai batzuk sortzen dabez barruan.

"Errege garaitzaren lorea" Bitori Erregiñeari eskiñia da, berogei zm.'ko zabalerea dauka. Loratzen dan egunean zuria izaten da, gero larrosa-antzekoa, gero urpera sartzen da aziak eldu dakiozan.

Buda'ri India'n egiten jakozan irudietan, usobedar baten gainean agertzen da. Ejiptoarrak, oster, lora au Iris jainkoak ekarria dala esaten eben eta ortik sortzen ziran garauak jaten ebezanak, gomutamena galtzen eben eta euren aberria aitzu. Jazintoa urdin ederdun lorea da eta Ameriketari naiz Asia'n ezin ikusi dabe, ibai eta erreka guztiak beteten dauzalako eta urari joatean galazo. Eltxoak be bere sarean itita geratzen dira.

Zi loradunak eta iturri-bedarrak, uretan naiz lurrean bizi leitekez, bardin irribedarra be. Oneik epaillean zingiretan eta lur buztietan oial eder bat egiten dabe.

Iiasamortuko lanclarrak lodiak izaten dira eta edozein bazterretan dagoz, Siberian, Mexiko'n, Imalaia'n eta Japon en. Olako landarakaz egiña da Monako'ko lorategi bat, oso ezaguna. Lora-mota asko daukaz olakoak.

Landara oneik bizi izateko argi bizia, euri urria eta lurruna bear dabez.

Landarea bera argimutil baten antzekoa izaten da eta lorea larrosa biribillaren antzekoa.

Ego-Afrika'n "arri biziak" deritzen lorak arrien artean kikilduta agertzen dira sei illebete-ko legortean eta burua arearen azpira sartzen

dabe, eta euri-tantak agertu arte ez dabe urteten.

India'n pagoda-arteko saaguaro edo argizaia esaten jake eta amabi tone'ko astuna eukitera eltzen da. Onen aleakaz edari gozoak egiten dabez eta aziak egaztiak loditzeko dira egokiak.

Mejiko'n "pulke" ladaregaz izen ori daukan edaria egiten da eta zaragietan irakin-ondoren, edan ezkerro, laster ekarten dautse mozkorra.

Beste erri batzuk "Su jainkoaren kalabaza-landarea" gurtu egiten dabe, Jainkoari eskiñia dan kaktus bat da eta diñoie au jaten dabenak brua galduta geratzen dirala. Onen billa asagora joaten dira eta berrogei egun baiño geiagoko bidaldiak egiten dabez. Bide orretan andrak ondo jantzita joan bear dabe, eskuetan errosario batzuk daroezala eta euren pekatuak autortu bear dabez. Errosarioaren garau bakoitxak pekatu bat gogoratzen dau. Iñori ez jatorko burura olakorik, etxeetan apaingarri lez kaktus'ak ikusten doguzan.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua



Ori-motak.

BASA-PIZTITZARREN AROA

Onatx gauza bakana. Millaka urtetan kontatzen dira tzirik, ez tresnarik, ezta artarako ideiarik gabe ere, botikari-gizakiari buruzko dakizkigun goraberak, ikertu ta aztartu ditugun bizilur gaiak eta aitzuloetako orma-pinturak, e. a. Milloika berriz, mamutzar edo basaizeenak, aurkitutako ezur-fosil ugarien bitartez, gizakiarenak baiño kopuruz asko ugaritsuagoak.

Gizakiena baiño askoz leenagokoa ornen dugu piztitzarren sorrera. Leenaldi artan eta oso luzaro, jarei-jarei bizi izan zan aberedia, giza-zirikamenik gabe, alegia. Ba'dirudi aundi, txit aundi zala dana antziñate artean: zuaitzak, garoak, belarrak... eta galantak ere mota guztietako izeak. Ainbat taldekoi, oro-ar, "saurio" deitzen diegu: dinosaurio, allosaurio, e.a. gerkar-aurrizkiz bereiztuak.

Izen aztarnategiak.— Siberia, egara otza danez eta antziña otzagoa zanez, garai artako izen aztarnategi edatsua eta garrantzikoa dugu. Eta Siberia luzati-zabal ontan, Gobi lekaroa. Bertan, zientzilari-talde batek, lur izoztuak jo ta galbaituz, dinosaurio erraldoi baten ondakiñak aurkitu zituan. Garezur galanta eta bizkarreko amar orno-atalaki. Auek ogeitamar metroko luzez. Eundaberrogei milla urteko bizi-iraupena edo adina erizten dizkiote dinosaurio erraldoi orri. Oraindiño aurkitu dan arri-jitezko dinosauriorik aundiena.

Mamut deituraz ezagutzen dugun letagin luzeko abertzar illetsua ere bertako izozpean aurkitu zuten, naiko prexkua oraindik, izotzak iraunazten bait-ditu aragiak.

Beste toki askotan ere aurkitu izan oi dira pizti-ondakiñak, bizi-urrats edo aztarnak. Mexiko'n antziñate zarrekodordoka-fosillak aurkitu dira, bi metro luze eta pixu aundikoak. Oskola adarkizko estagarriz ez baiño larruzko duten espezi edo ari bakaneko. Ondartzetara leen bezela orain ere errutera inguratzen dira.

Gizakien agerketa.— Nun kokatu gizakien agerrera mundu zarrean? Erliziozko tradizioak Asia'n jartzen dute. Baiñan ori ez dago jakiterik. Eta ona beste galderatxo bat. Leenengo izaki arek ba ote zeukan gure antzik? Ez, antropologarien iritziz. Orduango gizakiak etzeukan gure antz berdiñik. Aren masail eta bekañak oso irtenak ziran, kopeta atzeruntz zapalduta... tximuaren antzeko. Alaz ere zutik zebillen (horno habilis). eta eskuak gai zitzaizkion lanerako (horno habilis). Zenbait lur-maillaketan, estratu geologikoetan alegia, aurkitutako antziñakoen ainbat garezur eta metakarpo-egurak dioguna adierazten digute.

Bizigirotsaikorra.— Izadi basakarrak berezko almezez itotzear jartzen zuan giza-bizitzaren leen-arnasaldia. Noraezkezoak, bear bearrezkoak zitzaizkion lurgune, bizitoki ta jakia, mamutzar eta abeluzu, basabere ta oiarekin ezin bestean leiatu bearrean jartzen ziguten gizakia. Azi alean indartzen joan zan gizakia zorionez. Baiñan etzan erreza leen-aldietako gizakien biziera. Pentsa dezagun: zer egingo genduke guk izotzetan kixkurturik, ez jan-

rik gabe, otzak (ez bait-zekiten surik egiten, ez eizarik egiten edo-ta piztiekin burrukarik egiten. Eta suak, ondo dakigu orain, uxarazi egiten ditu piztiak. Auxe da, sua alegia, gizakiaren asmakizunik aundiena.

Euskalerrria'z xetasunak.— Euskalerrria eta bertako gizakiari buruz zer dakigu? Gure aztarnategietan (Isturitz'en, Urtiaga'n, Ekain'en...) aurkitutako ondakin, lanabas eta tresnak aztertuz, jakintsuak eta ikerlariak ondoretu digutena: euskal abenda ementxe sortu zala, Cromagnon'en jatorrikoak gerala, gure euskal kultura oso berezia eta guru-gurea dugula. Cromagnon'ko gizakia bizi da lurrean. Leen gizadiaren adarretik au da bizirik ilki zaigu. "Horno Sapiens" deritzana da oarin-oraiñean bizi geranon adarra.

Tirol aldeko gizakia.— Austria'ko Tirol aldeko parajea (Alpe mendiak) elurtoki zabala da. Ta ba'du alde ortatik Siberia'ren antzekotasuna, izozpean bizidun izandakoen ondakiñak bere-berean gordetzeko eta iraunazteko. Ementzeko ormategi batean (izparringian irakurri dugunez) orain bost-seiren bat ure, budiñori garaiko gizon baten gorpu izoztua aurkitu zuten, norabait jitoan zijoana. Mendi goi-goian aurkitu alajaña, oso ona era ortan aztertuz, duela lau milla urte Europa'n egiten zan biziera ez-ezaguna antzeman edo argitu aal izango dira. Izazki 14'ari esker zeaztuko da guztiz zein garaitan bizi izan zan "izotzetako gizon" au, alako ingurune txarrean eta alako goieran egotea naiko arrigarri gertatzen bai da.

Biblia laguntzaille.— Idazteuna, zudu aundiko liburua danik ez dago ukatzerik. Lagungarri ote dugu gizakiaren sorrerako argibidean? Edespen eta kontakizunak bereiz, liburu ontan agertzen diran leen-aldietako protagonisten bizitz-urteak, Adan'engandik asita, ondoren-ondorenka lotu ezker, zenbat urte Ierrokutzen dira? Zortzi-amar millaren bat, goitik jota, nisk uste. Gizadiaren egutegian aldi laburra deritzait, oso labur edozein ikasiarentzat, arras labur zientzilari, paleontologiantzat.

OSINTXU'K



GORABERAK

Filosofiaren edestiak aldi guztietan iru mailla, gertakuntza-mailla, goi-mailla eta beera-mailla eukiten dauz: Grezia'n Sokrates'en aurrekoak izan ziran gertakuntza, goi-mailan Sokrates, Platon eta Aristoteles daukaguz eta beera-mailla ainbat eskola, Plotino nagusi dala eta ondoren San Agustín. Erdi-aroan bardin eskolastika-aurrekoak Karlomagno-inguruan gero goi-maillan Akino'ko Tomas eta Buenabentura deunak eta beera bidean gaur aztertuko doguzanak, "cuatrocento" barruan eta oneik dira urrango goi-maillarako gertakuntza. Ber-jaiotza edo "renacimiento" dira oneik.

* * *

Ber-jaiotza onetan be bide bi agertuko dira argi: Platondarena eta Aristoteles'tarrena.

Platon'darren artean Giorgio Gemiste Plethon (1355), Basilio Bessarione (1403) Giogio di Trebizonda (1396) Cosino de Medici (1459) Marsilio Ficino, Giovanni della Mirandola (1463). Guztiak dira Platon'en goratzaileak eta zerbait artzen dabe Aristoteles'gandik.

Baiña giro au ulertzeko begiratu dagiogun astitsuago Nikolas de Cusa kardinalari (1401): Au benetan erdi-aroaren eta mundu barri edo modemoaren bitartean dago. Aurreko platon-zaleen irakatsiak onartzen dauz. Gauzak ezagutzeko bide lez "docta ignorantia" artzen dau, ez dakigula onartu bear dogu ikasteko.

Bide bi dagoz ezagupena lortzeko, zentzunen bidea eta adimenarena, zentzunena da zeatzena eta adimenak alkartzten dau dana, baiña ez da urrin eltzen.

Dana-jainko edo panteismorako jokera dauka, mundua, egindako Jainkoa da, eta guztietan dago Jainkoa. Gizona da egindako guztien laburpena, "microcosmos". Ezagupenak iru mailla daukaz: Zentzunak, buruargia eta adimena.

Jokabide orregaz batera doa bigarren bidea, Aristoteles'en bidea.

Asieran Grezia'tik turkitarrak erbesteratuak dagoz: Trebizonda (1396) Sholarius (1405) Pomponazzi (1462) eta Aberroes-zale batzuk. Kaietano kardinala, Bitoria'ko Frantzisko (1492) Inditarren aldeko legeak agertu ebazana, Domingo de Soto (1494) eta Melxor Cano (1509) eta eztabaida aundiak atera ebazan Luis de Molina (1535). Baiña guztietan nagusi Frantzisko Suarez (1548).

Sasoi onetan agertzen da zalantzarien edo "eszeptikuen" irakatsia, au izan zan oiñarri Descartes'ek gero agertuko dauan azterbiderako. Estoikuak eta Epikuro'ren aldekoak be or dagoz, onein artean nagusi izan zan Montaigne ospetsua. Onen jarraitzaile argia izan zan Pierre Charron.

Azkenengo zalantzarri onein ondoren lez agertu ziran ain garrantzi aundikoak izango diran askatasun-zaleak edo "libertinoak". Oneik zabaldu eben bidea filosofi barrira sartzeko orduan jokabide-filosofia edo etika eta jainkoa-zaletasunarena alboratuko dabenak eta ortik etorriko da "Enziklopedia" deritxon buru-argien edo "ilustrauen" bidea.

Filosofi barri bat sortuko dauna René Descartes izango da, baiña aurrean aitatu doguzanak gertatu eben bide ori gizaldi bitan.

Aldi onetan, beste gizaldi birako izango dan aldi barri onetan, lau gai artu bear doguz kontuan: Buru-argien filosofia, zentzunen bideko filosofia, jakin-gaien edo zientzien bidea eta, azkenez, Ilustraziñoa. Eta azkenean dana ondo batuko dauan Kant.

Politika-arloan be aldakuntza aundi batzuk datoz.

Mundu barriak agertu dira eta an aurkitu dira gizon basatiak eta onak, berez gizona ona dala eta gizarteak okertzen dala diñoan bidea, or sartzten da "Gizarte-ituna" edo "Kontrato sozial", gure aldiko agintaritzat aldatuko daun bidea.

XVI gizaldian agertzen dira askatasun-zaleak edo libertinoak, Montaigne ta Charron aurrean dirala eta onein aurka jokatuko dabe filosoforik ospetsuenak, Descartes, Malebranche, Spinoza... baiña pentsaera ori izango da nagusi Entziklopedian eta or baztertzen da filosofoen erlejiño-zaletasuna, zori txarrez, or zapaltzen da fedetik datorren jokabide edo etika zuzena eta erlejiñoa dala esango dabe guda guztien iturri. Benetako erlejiñoa filosofia bera dala diñoa... Pierre Bayle (1647) da onein buru. Onek alkartzten dauz Askatasun-zale edo libertinoak eta entziklopediaren egilleak, Diderot eta D'Alambert.

Paskal dogu azkatasun-zale onein aurka sendo agertzen dana, beste filosofo ospetsu guztiak, geiago edo gitxiago, burua makurtu eben: Descartes, Spinoza, Leibniz... eta batez be enpiristak.

OLAZAR'tar MARTIN

SEBE AYASTUI NIRE LAGUNARI

Nire lagun Ayastui, mixiolari,
jo ta ke dabil txiroei laguntzen
"aintziradi" Txako'n berarian deitzen
maite-maiteki "APAIZ IBILKARI",

Ta egun guztian zertan da ari?
Ango oste lauen arloak argitzen,
euren kristautasun errez obetzen,
danian edatzen mesede ugari.

Leiaz nai du gai auek zuzentzea:
zuzaitzen ebakita arautatu;
bein da berriro oianak basotu;
eskola-jantokiak aunditzea;
iñoiz baltsak oker-eraztea;
ta kontuz besusak kontroaztea.

Bapo jokatzen emeretzti urtetan
"URREZKO-BIOTZA" Z saritu izan da:
ordaiñik autena gizurenentzat!
Txalorik onenak guretaentzat!
Gora Sebe Ayastui Mixiolaria!

JOSU EXEA

DANTZA

GALDAKAO'N KATOLIKU-EKINTZA EUSKAL DANTZAK ETA ANDRA MARI

SAN ANTON TXIKERRA

Galdakaon San Anton Txikerreko eguna nai ta neguan izan, Uztaillaren bigarren domekan be eiten zan, ta bietan Galdakaoko Banda de Musika taldearekin; ta txistulari ta guzti.

Egiarte txistulariak 17 urte euki ebazala, udako jai aretan, bertan txistua jo ta Gaztedi dantza-taldeko Josu Meabe eta Joseba Arrietak aurrekoa dantzatu eben.

Gero txistulari eta aurrekulariok bueltan batera etorri, ta ortik ezagun bidea lortu eben.

ESPATADANTZARIAK LORTZEA

1957garren urtean Egiartek Sabino Larreari esan ei eutson, espatadantzari talde bat Katoliku-Ekintza lortzen bazan bera be txistu jotzen pareuko zala.

Ortik gero, Katoliku-Ekintza'n Sahino Larrea, idazkari edo sekretario eta Amantxi Meabe lendakari izateko geratu ziran, espatadantzari-talde bat sortu eta aurrera ateratzeko asmoaz.

Ni ez nintzan Katoliku-Ekintza izan eta an ez mintzan egon.

Espatadantzariena gogoan artu, eta Gaztediko Josu Meabe eta Sabino Larrea jaunok, alkarregngandik urbil Bankuetan lan egiten eben eta, ortik geroago, Gaztediko Arrieta eta Meabe jaunok Txinberari esateko geratu, Galdakao'ra dantzak irakastera etorri al ba'eban.

Eta gauzak orrela, 1957'ko Udagoienean berean, Santa Kurtzetatik gero, Jose Mari Gainza eta Ramon Larrauri Katoliku-Ekintza'koak esanda GAZTEDIra Txomin Untzalu'rengana dantza pausu batzuk ikastera joan ziran, gero an ikasitakoa Galdakao'ko parroko sakristian irakasteko asmoan.

Baña Txomin jaunak Juan Orozko "Txinberari" esan, ta jaun ori, Meabe eta Arrietaren esanaz gainera, bereala urte pare bat inguruan, astean iru egunean etorten ibilli zan: eta Andra Mari dantza taldea izango zanen dantza maixu biurtu zan.

«"Gaztedi dantza taldea" "Berrogeigarren Urteurrena"» liburu orretan be agertzen da zelan Txinbera 1957garren urtean Galdakaora eta Txomiñen aginduz, dantzak agertzen da zelan Txinbera 1957garren urtean Galdakaora eta Txomiñen aginduz, dantzak irakasteko astean iru bider etorten zan.

AZAROAK 22A ZEZILIA SANTEREN EGUNA

Azaroaren 22an egiten dan musiku guztien zaindariaren eguna zala ta, Galdakaon 1957garren urtean, koralak, egun ori ospatzeko jaialdi bat Zine Regio toki ortan egin eban.

Udalak be 1957garren urteko Zezilia Santearen eguna zala ta, gastuetarako zapireun peseta Maximo Moreno jaunari emon eutsozan.

1957garren urtean, Galdakaon espatadantzari ez zegoan lez, koraletik Jose Luis Egiarte txistulariak eta koraleko geiagok ere, Zezilia Santearen jaialdiko eguna ospatuteko, Begoñatik Karmeloko Gaztedi dantza taldea ekarri eben; eta Eleizaldeko eleizearen india eszenarioaren sakone edo fondoan ipiñita

zegoela. Jaialdia orrela egin zan.

1959GARREN URTEA

Galdakaon Gumuzio auzuneko Erletxetan 1959garren urtean, San Bernabe Jaietan. Argazkian gagozenon izenak esaten asi ezker, gure ezkerretatik eta zutunik dagozan gizona-koen artean, txistu ta danboliñegaz Jose Luis Egiarte, eta gero Justo Estrada, D. Jesus Maria Markaida Erletxetako abade jauna, eta gorenengo biak abadeengandik urrengo Jose Mari Barrenetxea eta bestean Jose mari Etkezarraga.



Abadearen aldetik asita zutunik dagozen neska: Begoña Uribiarte, Mariangeles Artetxe, Mari Isabel Asua, eta irlandera erropak kenduta Kontxi Gainza.

Gainzaren ezkerretatik Maria Jesus Garabi eta, Marisefi Egiluz, Bego Asua, Jose Luis Agirre eta Lekeitio erriko Sabin Ansola txistulari dala.

Egiarteren aldetik asi ta erdi makurtuta dagozenak: Ana Mari Irigoien, Mariangeles Lara, Jesus Mari Ariznabarreta, Jabi (Bilboko dantza irakaslea) eta Mariangeles Gainza.

Beratxuago eta sagieri besoa luzetuta Jose Mariano Barrenetxea (dantzari eta txistulari izaten zana).

Eta nire ezkerretatik Jose Mari Gainza baita sagidune German Maeso.

Nire ezkerretatik asi ta jesarrita dagozenak: Pedro Ignazio Artetxe "Kepa", Rosa Mari Bilbao, Pedro Mari Azkueta, Bego Uriarte, German Solaun eta Lekeitio erriko txistulari Patxi Ansola, Sabin anai.

Txistulari onein aita be "Lekeitio" txistularia Erletxetako jaietan bertora txistu jotzen etorten zan.

Altuna ta ni Erletxetako jaietan txistu jotzera joanda, lenago be "Lekeitio" adiñeko txistularia bertan ezagutu genduan.

Maria Jesus Garabieta, Mariangeles Lara baita Bego Asua irlandera euren lenengo dantzaldia orduko egunean egin eben; eta mutillen artean Jose Mari Etkezarraga'ren lenengo dantzaldia be Erletxetan orduko egunean izan zan.

Erletxetan dantzan egiteko erropak erosteko, taldeak ez eukan dirurik, eta bakoitzak berena egin bear, eta ordaindu be bai ta erropa barriekin dantzan egin zan.

Gero neska batek baiño geiagok dana dalagaitik dantza taldea itzi bear ta jantziak urrengo barrien batentzat taldean geratu. Orrelean izan ziran orduko denporak.



Egun bereko 1959garren San Bernabe jaietan, neskek euren dantza soltue egiten. Korruen erdien aurrez agertzen dan neskea Rosa Mari Bilbao dogu, eta besteak be aurreko argazkian dagozan neskek dira.

1959. GARREN URTEAN



Nai ta asko ez giñan izan, lenengotan dantza taldeak Katoliku-Ekintza izen ori erabilli neban. Ikurriña be lenengotan Katoliku-Ekintzakoa izatea nai eben baiña lenagokoa, 1914garrenkoa erabiltzea pentsau zan.

Ramon Salutregi frallearen lenengo meza 1959'garren Uztailaren 12an izan zan, eta argazkian ikusten dan legez, txistulari Jose Luis Egiarte 25 urte zituzela, eta tanborragaz Jose Antonio Borbolla, Egiarte baño 10 urte gazteago izan zala. Borbollaren ezker aldean eta jesarrita, Ramon Salutregi jauna, eta neska dantzarien eskoi aldean jesarrita dagoen abade jauna, D. Maurizio abadea da. D. Maurizio-ren barrenaldean eta makurtuta, iru espatadantzari; gagoz eta euron artean eskoierengo zuriz dagoena alde bietana orrastuta neu naz, eta nire ezker aldekoa Justo Estrada dala esan leitike.

1959. GARREN URTEAN. GERNIKA'KO JAIAK

Gernika'n Galdakao'ko parrokian gengoan dantzari taldeak neure amak emon eban Andra Mari izena erabilli genduan eta 1959garren Agostuko amaseian arratsaldeko lauretan Gernika'ko pasalekuan dantzatu genduan.

BERMEOKO JAIAK

1959garreneko irailearen bederatzia, eguastena, goizeko amaika ta erdietan Galdakao'ko Andra Mari dantza-taldeak erriko plazan, ibillaldia eta dantzaldia egin ebazan. Urrengo urtean be, 1960garreneko Iraillaren bederatzian, barikua, Galdakao'ko Andra Mari dantza-taldeak ibillaldia erri guztitik egin ondoren, dantzaldiak be egin zintuzan.

Dantza-taldea ibillaldia erriko egiten gengoazala, eta itsasaldeko kaletik bera gentozala eta, etxe bateko portalada aurretik goizela, adiñeko andra batek, ate aurrean eskuak garrien ipiñita pareu, eta iñoiz entzun ez dodan moduko ta izugarritzko irrintzi luze bat bota eban. Andra aren irrintzian gogoaren eta biotz barruko sarrastadaren esantza eta adierazpenaren gogoa danak batera egozan; eta arek irrintzi aregaz esan ebana, berbakaz egundo ezin leikian esan.

Gernika'ra edo Bermeora edo erri bietara, Zirilo Bikandi jaunaren Galdakao'ko autobusean joan gintzazan, Bilbo'ra joateko be egunean birriten edo Zirilo'ren autobusean joan bear izaten zan.

GALDAKAO'KO JAIAK

1959garreneko Iraillan Galdakaon, Santa Kurtzetako jaietan Andra Mari dantza taldea.

1959garren Abenduko 16an Galdakao'n Zinc Regio ortan jaialdia eder bat egin zan, Sabino Larrea danagaz geien arduradun eta biotz zala.

Jaialdia asi ta lasterrean Sabino'k deitu nindun jaun bat etorri zala ta, sarrerak saltzen ziran takillara joateko. Joan gintzazan ta, eztaikit Sociedad de Autores edo, ta salduko sarreraren dirutik euneko ogei edo ogeitamara edo eskatzen euskun. Jaun aren esan neuntson, bai soñu dantza ta abar, errikoiak zirala ta, ez autoreenak; ta erantzun euskun esanekoa ordaintzen ez bagendun, Jaialdia bertan bera ezeztaraziko ebala, eta arek esanekoa ondo ixilik eta apalik ordaindu egin bear izan zan.

Andra Mari taldearen jaialdian parte artu ebenak "Cuarteto Soroak"; "Einarak"; Ondarruko Argoitia Anaiak (neba-arrebak); Andra Mari-dantza-taldea eta lenengoz dantza-taldeagaz Antonio Ayesta "Jitano" albokaria, Martzelo Arrieta "Borlas" soñularia, eta, Erromalda Zuloaga panderojotzalle eta kantalaria (albokariagaz eta soñulariagaz bikote egiten). Esan bearra dago: Erromaldaren eta Jitanoren etxera, alboka soñua jo ta dantzak egiteko jantzak ikasten lenagotik joan ziranak Abenduaren 26an jantzak egiteko, taldetik lau neska ta mutiko bat joaten zirala; ta seikotea, Erromaldearen alabarik gazteenak beteko eban, lau neska-talde eta, neska mutil bikote izateko. "ZER" 299garren albistallan amar garren orrialdean ALBOKEA diñon atalean auxe esaten da: Urte berean, taldeko Patxi... eta esan bear zan? 1959ko urte berean taldeko Patxi...

1959ko 26an egin zan jaialdian eszenarioko fondo edo sakonera, zabalera ta altura guztia betetzeko, Klaudio Zarate, Rufino Ereño, Egiarte, ta beste batzuk be arteragoko urtean, Santa Zezilia'ren eguneko jaialdia ospatzeko, irudi edo kuadru eder bat egin eben. Kuadru ori, Zugutzuko eleizearen arkupetan, Dinamita fabrikako Parafina lekutik, baimen guztiakin, papel pilloa ekarri eta arkupetako zelaian papelak zabaldu ondoren, gainean pintura ezbarriak bota eta, Klaudio egille buru zala, Eleizaldeko eleizearen irudia ta guzti egin eben; ta zinen be kuadru eder ori 1959 gabon inguruko jaialdian ere orrelaxe jarri zan.

JOSE MARIANO BARRENETXEA

IKUSI GARRA TA ARGAZKIA 17. ORRIALDEAN

ARZERRIKO IBILTARIAK

EUSKALERRI ZARREKO BIDEAK-ZEAR

(1502)

Gaurko idazlantxo au, irakurle, **Joane** "Eroa" Errege Katolikoan alaba ta Gaztela'ko erregeingaiak —eta andre gaixo onek senarra zuan **Felipe** "ederra" Maximiliano Alemani'ko inperatorearen semea, Gaztela'ko erregeburuntza jazteko Flande'tik España'ra San Adrian'go mendatea-zear egin zuten ibillaldiaz kontatu nai dizugunaren bigarren zatia da.

Aurreneko artan Antoine de Lalaing idazleak, orduango idazle danek bezala, San Adrian'go mendetearen gogortasun "ikaragarria" neurri ororen gaindik audituz gero, inguru artako toponomiaz mintzatu zitzaigun.

Pozik damaio bere azken -agurra iparraldean uzten duan lurralde menditsuari. Orduango bere itzak aztertuz asiko dugu gure gaurko lana:

"Aquí (San Adrian'en) termina la región montañosa y estéril de Vizcaya, Guipúzcoa y Vasconia, cuyos habitantes van a buscar vituallas con asnos y mulas a los muchos puertos que hay en estas zonas de donde salen muchos navios que luego acuden a todas las partes del mundo". (Azpimarraketa, nereak).

Holanda'ko probintzia'ren Lendakari (Statuder) izatera iritxi zan Lalaing, itz oien idazlea lur lau zelaieko semea izaki-ta, izaturik igaro zuan, barduliar bildurgarri betetako, oro-memdi-eta-ipar-estu besterik ez dan Gipuzkoa, eta bildurrez lausotutako bere begiek, ez zuten ezer ikusi. Soilki aietako asto ta zaldi ugariak.

Baiñan gure idazle ark idatzi zituan itz oiek gezurrezko itzak dira, eta idatzi zuan ortan bertan dago gezurtasun orren adigarri ziurra, ortarako ainzuzen, nik azpimarratu ditudan itzek erakusten diguten bezala.

Itz oiek, idazkera ortan dakarren iperbole edo geiegitasunik gabe artzen ba'ditugu ere, onoko au jakiñarazi nai digute: Beren kai guzti aien eta kai eietako onzi ugariem bidez ("muchos puertos"; "muchos navios") itxas-arunzko erbesteekin ("con todas las partes del mundo") ainbeste ta ainbesteko arreman ugari ta ederrak zituzten Euskalerriko lurralde aiek ez zirala, ez, antzu eta txiroak, arras aberatsak eta txit emankorrek baizik.

Orduan 20 urteko mutil gaztea zan Andoni Lalaing'ek gure kaietan ikusi zituan mando ta asto aiek danak, ezparririk gabe, Euskalerraren barrungo errietara, gure ontziek atzerrietatik ekarritako ondasunak eramateko zeuden

an, eta ez Euskalerrian iñor gosez iltzetik salbatzeko. Oro, aldi aietan mando-gaiñez egin oi zala kometzio azkar guztia.

Gaiñera, bat baiño geiago ditugu ibillaldi aren berri damaiguten idazleak, Auetako batek, Lorenzo de Padilla'k bide egokia ematen digu orduango euskalerriko bizieraz zintzoki pentsatzeko: Bi printzipe aiei Bitori'ra iritxi ziranean "*muuy honrado recibimiento*" egin ornen zitzaien: "*Les presentamos mucho pan y cebada (abereentzat) y vino y aves y vacas y carneros para su despena y los tres días que estuvieron en esta cibdad / lobo muchas fiestas y juegos y toros*".

Oparotasun orrek, Araba beintzat aberatsa zala esan nai digu, eta aberatsa ba'zan Araba, baita alako ontzisaillugariz mundu osoari itxasoz loturik zeuden Araba'ren aizpa biak ere: Gipuzkoa ta Bizka. Araba, naiz XX mendearen azken-laurdenaz gero "perkapita"ko aberastasun-sorketan (baita, urte batzuetan, Laterriko probintzi guztien artean ere) txapeldun izan, anziñate artan ez zaigu Eusko-Laterrietatik aberatsena agertzen. Zailla zala dirudi iru Eusko-Laterri bikaiñ aien artean bikaiñena zein zan aukeratzea, "*parce qui'il sage de trois vedettes de premiere qualité*" (Sarailh Sorbona'ko Erretorearen itzak dira, buruz oroitu ditudalako, ez agian oso zintzo jasoak). Alare, Sarailh'ek txapela Gipuzkoa'ri damaio.


"Zezenak", aipatu ditu Padilla kronikalariak: "*Muchas fiestas* (elizkizunak aipatzeke, dantzaldiak seguruaski enparantza ta karriketari, eta agian bertsolarien ariketak erriarentzat), *y juegos* (bearbada aizkolariak, aari-talkak, idi-probak, barra-jaurtiketak, laisterkarien demak, pelota-partiduak trinketez eta, era luzez, plaza ta kaleetan, soka-tirak...), *y toros* (aundia izan da ba Euskalerrian zezenenganako zaletasuna; orduan orain baiño aundiagoa). Gaurkoz ez dut emen ortaz mitzatzeko tokirik baiñen etorriko zaigu beste egun batean ortarako adontasuna. Ta, besterik gabe, agur irakurle. Neri zerbait esan edo eskatu nai ba'didazu, nere izenpenpean duzu, nere urrutizkiñaren zenbakia.

Latiegi ta Eraso'tar Bixente
Euskerazainzakoa
945 23 31 40

EUSKALDUN BARRIENTZAT



AMAR EZBERDINTASUNAK.



LOTU ZENBAKIAK! ETA MARRAZKI BAT AGERTUKO JATZU.

KARMELE

ZER (299) AKATZAK

Atal orretan diñot Mariano txistulariaren amak 1960garren urtean asmatu (Andra Mari izena). Baña 1960 baño lenago nire amak Sabino Larreati emoneko izenagaz (Andra Mari) 1959an be Gernikan dantzatu genduan.



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²